



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO  
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2013. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN  
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUAK, IKUSKAPEN  
TXOSTENAREKIN BATERA**



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO  
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2013. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN  
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO  
IKUSKAPEN TXOSTENA**



## URTEKO KONTUEI BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA

---

Basauriko Udaleko Kontu-hartzaileari:

### 0. SARRERA

BASAURI Nerbioi-Ibaizabal eskualdean dago, Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta 41.799 zuzenbideko biztanleria dauka 2013ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

2013ko ekitaldiari dagokion BASAURIKO UDALAREN kontu orokorra, *Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 62.* artikulua exijitzen dituen udalaren eta berezko nortasun juridikoa duten haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “UDALAREN LAGUNTZA KOMUNITARIOKO ZENTRO ETA AUTONOMIA PERTSONALERAKO EGOITZA” organismo autonomoen eta “BASAURI – ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” sozietate publikoen, aurrekontu-izaerako eta patrimonial-izaerako kontuek eta egoera-orriek osatzen dute.

Aipatutako erakundeei aplikagarria zaien finantza eta aurrekontu informazioaren esparru-araugilea, aurreko Foru Arauak, hala nola, *Bizkaiko Toki Erakundeetako Aurrekontuen egitura eta Kontabilitate Publikoko Plan Nagusiak onesten duen 2004ko abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuak* ezarritakoa da. Halaber, mendeko sozietate publikoek beraien urteko kontuak azaroaren 16ko 1514/2007 *Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren* arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte.

Hurrengo I. atalean deskribatutako norainokoaren arabera, udalaren urteko kontu bateratuen azterketa izan da informe honen xedea.



2014ko martxoaren 27an, beste auditore batzuek “BIDEBIETA-BASAURI, S.L.” sozietate publikoaren 2013. urteko kontuen gaineko ikuskapen txostena eman zuten, aldeko iritzia adieraziz.

Lanaren norainokoak ez du gastuaren eraginkortasuna eta efizientziaren analisia barneratu, ezta Udaleko kudeaketa prozedurena ere.

## **I. IKUSKAPEN IRITZIA**

1. BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko organismo autonomo eta sozietate publikoen (aurreko “0. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu, aipatutako entitateen 2013ko abenduaren 31ko egoera balantze bateratua eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioa barnean hartzen dituelarik. Dokumentu hoiek Udaleko Kontu Orokorraren barnean daude. Bateratutako entitate bakoitzeko Lehendakari eta Esku-hartzaileak urteko kontuen formulazioaren, eta kasu denean, aurrekontu kitapen ematearen arduradunak dira, finantza eta aurrekontu informazioko arau-esparruan oinarrituta (aurreko “0. Sarrera” atalean identifikatuta), eta partikularrean, bertan barneratzen diren printzipio eta kontabilitate irizpide publikoetan oinarrituta. Udaleko Kontu-hartzaileak, erantsitako memoriako 2.c atalean isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta, formulatutako eta emandako urteko kontuen eta aurrekontu kitapenen bateratzea burutu du. Gure erantzunkizuna, egindako lanean oinarrituta, urteko kontu bateratu horien inguruko iritzia ematea da. Hurrengo 3. paragrafotik 6.era aipatutako salbuespenak izan ezik, lana Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza aktibitatea erregulatzen duen arautegiaren arabera burutu da, aukera-saio bidez eginiko urteko kontu bateratuen zuintasun justifikagarriaren azterketa eskatzen duelarik eta honen aurkezpena, erabilitako kontabilitate printzipio eta irizpide, eta eginiko zenbatespenak, aplikagarri den finantza eta aurrekontu informazio arau-esparruekin bat datozen ebaluatzea eskatzen duelarik.



2. Geure 2012. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, lanaren norainokoan ondorengo bi mugapen barneratu zituen:

- a) Aipatutako txostenaren datan, Udalaren eta “Basauri-Etxebarri Behargintza, S.L.” sozietate publikoaren zenbait erakunde diru-emailei, 2012. urtean beraien aurrekontuen kargura egindako ordainketak baieztatzeko, eta Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten zenbait abokatuei, honengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioak edo hauen ondoriozko pasibo kontingenteak baieztatzeko egindako eskaeren erantzunik jaso ez izanagatik.
- b) 2012ko abenduaren 31an, saldoei eta bertan bildutako ondasunen kontabilitate kontuaren araberrako xehetasunari dagokienez, udal-inbentarioa biltzen zuen informatika-aplikazioak ez zetorren bat Udalaren data horretako egoera-balantzeko “Ibilgetua” kapituluko kontu ezberdinekoekin eta “Erabilera orokorrera emandako ondarea” kontukoarekin, aldeak berdinkatu ezin izan genituelarik. Hori zela eta, ezin izan genuen 2012ko urteko kontu bateratuetan zuten islaren arrazoikotasunari buruzko iritzirik eman. 2013. ekitaldian ez dugu mugapen hau izan.

3. Bestaldetik, txosten honen datan, ezin izan dugu jaso ondorengoengandik baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

- a) Udalaren erakunde diru-emaile bat, 2013. urtean honen aurrekontuaren kargura egin zaizkion ordainketen egiaztapenari dagokienez.
- b) Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten zenbait abokatu, honengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioen edo pasibo kontingenteei dagokienez.

4. “Basauriko udal euskaltegia” organismo autonomoak, ez ditu 2010eko uztailaren 2tik eta 2011ko maitzaren 27ra bitartean Errektore Kontseiluak burututako bilera baten baten aktak gure eskura jarri, gutxienez, 2011ko otsailaren 9an egindakoa falta delarik, horietan hartutako ebazpenak eskuratu eta egiaztatu ezin izan ditugularik. Honen ondorioz, ezin dugu



zehaztu erantsitako 2013ko urteko kontu bateratuetan eragina izan dezaketen erabakiak hartu direnik. Geure 2012. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena barneratu zuen.

5. Basauriko Udalaren mendeko organismo autonomoek ondasun inbentariarik ez daukate. Beraz, ezin dugu erantsitako 2013. ekitaldiko urteko kontu bateratuetako “ibilgetu materiala” epigrafean erregistratzen diren eta udalak adskribitu ez dituen ondasunei dagokien 8.404 mila euroko balio gordinari buruzko iritzirik eman. Geure 2012. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena ere barneratu zuen.

6. 2012ko maiatzaren 18an SR-1 San Miguel Mendebalde bizitegi urbanizagarri sektoreko birsailkatze proiektuko behin betiko onarpenean, Basauriko Udala H lursail eta etxebizitza libreen sustapenerako F lursail eraikigarriari dagokion %50,4332 balioaren esleiduna gertatu zen, besteak beste. Halere, Udalak ez dauzka lursail hauek kontabilizatutak, ezta ondasun inbentarioan baloraturik ere, txosten honen datan hauen balorazioa zein den ez dakigularik. Honen ondorioz, ezin dugu erantsitako 2013ko balantze bateratuko “Lurzoruaren udal ondarea” eta “Ondarea” epigrafeen gutxiezenaren zenbatekoaren inguruko iritzirik eman.

7. Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2013ko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratuan eta 2013ko abenduaren 31ko egoera balantze bateratuan, hala nola, 2012ko abenduaren 31ko egoera balantze bateratuko “Berezko fondo” kapituluan dituzten ondorioak:



Gehigarria / (Gutxitu) –Euroak-

	2013ko Ekitaldia						2012ko Ekit.
	Diruzaintz. gerakina	Aurrekontu ematiza	Aktibo finkoa	Aktibo zirkulatz.	Pasibo zirkulatz	Berezko Fondoak	Berezko Fondoak
<b>UDALA</b>							
Aitortu gabeko 4. hiruhilabeteari dagozkien ur-horniduraren, zabor-bilketaren eta estolderia-zerbitzuaren tasetatik datozen sarrerak	-	-	-	936.146	-	936.146	1.031.419
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren eta ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioak	126.613	2.996	-	126.613	-	126.613	123.617
Hurrengo ekitaldian erregistratuak izan diren udal zergetiko (501.541) eta “enpresa hornidura okupazio tasetiko” (117.118) sarrerak	-	-	-	618.659	-	618.659	484.139
Ekitaldiari dagokien baina itxiera datan aitortu ez diren obligazioak “Su itzaltze foru zerbitzuko 2013ko ekarpenaren kitapena”	(325.859)	(33.704)	-	-	325.859	(325.859)	(292.155)
2012. urtean lehen aipatutako F lursailean udalak duen parte-hartzeari dagokion urbanizazio kargen lehenengo ekarpen moduan, egindako ordainketen aktibazio falta	-	-	172.594	-	-	172.594	-
2009 eta 2012 bitarteko eta 2013 ekitaldiei dagozkien “Udalkutxa” likidazioen ondoriozko ordaindu gabeko zorraren erregistroen diferentzia	181.501	2.245.797	-	181.501	-	181.501	(545.933)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(17.745)</b>	<b>2.215.089</b>	<b>172.594</b>	<b>1.862.919</b>	<b>325.859</b>	<b>1.709.654</b>	<b>801.087</b>

8. 2007ko abenduaren 21ean Udalak ADIF Infraestructuras Ferroviarias-eko Administrazioarekin eta Bilbao Ria 2000, SA sozietate publikoarekin lankidetzat-hitzarmen bat sinatu zuen. Horren bidez, aipatutako sozietateari Bidebieta-Pozokoetxe-Lapatza kudeatzeko ardura ematen zitzaion. Hitzarmen horren arabera, Udalak eragiketaren ondorioz lortutako baliabideeki honen bideragarritasun materiala eta ekonomiko ziurtatzeko konpromisoa hartu zuen. Baina eragiketa autofinantzatzea espero bazen ere, aipatutako sozietateak eragiketa garatzean izan dituen finantza-desfaseak, errekurtsio propioekin ordaintzen joan da.


2013ko abenduaren 31an, sozietate horri egindako 2.898 mila euroko ordainketak (2012ko abenduaren 31arte ordaindutako kantitate berdina) epe luzerako aurrerakintzat hartu dira, eta data horretara erantsitako egoera-balantze bateratuko “Finantza-ibilgetua” epigrafean kontabilizatu dira. Horretaz gain, badira enpresa horrek eginiko eta erantzun ez diren 1.561 mila eurotako diruzaintza eskaerak. Udalak 2013, 2014 eta 2015 ekitaldien bitartean gauzatzea espero du.



Hala ere, deskribatutako gertaerak ez dira erantsitako memoria bateratuan azaltzen, aurrerakina kitatzeko eraren, unearen eta kopuruaren inguruan, bai eta eragiketa horren etorkizuneko emaitzen inguruan ere, emandako aurrerakinak data horretan erregistratutako zenbatekoetan gauzatu daitezkeen ez jakinik edo adierazitako egoera-balantze bateratuan horniduraren bat erregistratzea bidezkoa litzatekeen. Honen emaitza, entitatearen zuzeneko kontrolaren menpe ez dauden akzio eta etorkizuneko gertaeren menpe dago. Geure 2012. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena ere barneratu zuen.

9. Gure iritziz, aurreko 2. paragrafoan deskribatutakoaren ondoriozko efektuek konparazio-zifretan izango luketen eraginaren ondorioak salbuetsita, 3. paragrafotik 6.era deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat har zitezkeen doikuntzen ondorioak salbuetsita eta aurreko 7. eta 8. paragrafoetan deskribatzen diren salbuespenen ondorioak salbu, erantsitako 2013. ekitaldiko urteko kontu bateratuak, alde esanguratsu guztietan 2013ko abenduaren 31an BASAURIKO UDALAREN eta berezko nortasun juridikoa duten udalaren mendeko organismo autonomoen eta sozietate publikoen (aurreko “0. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak) ondare bateratuaren eta ekonomi-finantza egoera bateratuaren irudi fidagarria ematen dute, eta data horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitza bateratuarena, hauen aurrekontuen kudeaketa bateratuarena eta jatorritako eta aplikatutako baliabide bateratuarena, aplikagarria den finantza eta aurrekontu informazioaren esparru-araugilearen arabera, eta partikularrean, hauen kontabilitate printzipio eta irizpide publikoen arabera.

**Betean Auditoría, S.L.P.**



José Ignacio Miguel Salvador

Bilbon, 2014ko uztailaren 3an





**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO  
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2013. EKITALDIKO KONTU OROKORRA OSATZEN  
DUTEN URTEKO KONTU BATERATUAK**

# **BASAURIKO UDALA**

**2013. Urteko Kontu Bateratuak**

**BASAURIKO UDALA**  
**2013 eta 2012ko abenduaren 31n bateratutako egoeren balantzeak**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>AKTIBOIA</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>	<b>PASIBOIA</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>
<b>Ibilgetua</b>	<b>77.078</b>	<b>78.745</b>	<b>Berezko fondoak</b>	<b>77.316</b>	<b>75.382</b>
Erabilera orokorrerako inbertsioak	904	4.059	Ondarea	97.693	93.085
Ibilgetu ez-materiala	786	1.803	Lagatako ondarea	(21.772)	(21.268)
Ibilgetu materiala	68.311	65.263	Erreserbak sozietate publikoetan	163	268
Lurzoruaren udal ondarea	3.926	4.354	Galerak eta Irabaziak	1.232	3.297
Ibilgetu finantzarioa	3.151	3.266			
<b>Aktibo zirkulatzaila</b>	<b>14.808</b>	<b>14.260</b>	<b>Hornidurak, arrisku eta gastuetarako</b>	<b>80</b>	<b>80</b>
Zordunak	6.583	7.481			
Finantza-kontuak	8.225	6.779			
			<b>Hartzekodunak, epe luzera</b>	<b>7.672</b>	<b>8.617</b>
			Zorrak, kreditu erakundeekin	7.672	8.617
			<b>Hartzekodunak, epe laburrera</b>	<b>6.818</b>	<b>8.926</b>
			Hartzekodunak	3.374	4.058
			Herri erakunde hartzekodunak	1.594	2.985
			Bestelako zorrak	1.289	1.214
			Aplikatu gabeko diru-sarrerak	561	669
<b>Aktiboa guztira</b>	<b>91.886</b>	<b>93.005</b>	<b>Pasiboa guztira</b>	<b>91.886</b>	<b>93.005</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2013 eta 2012ko abenduaren 31 amaitutako urteko ekitaldietarako galera eta irabazien kontu bateratuak**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>GASTUAK</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>	<b>SARRERAK</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>
<b>Ustiapen gastuak</b>	<b>49.264</b>	<b>47.301</b>	<b>Ustiapeneko sarrerak</b>	<b>51.269</b>	<b>51.447</b>
Pertsonaleko gastuak	20.269	20.177	Zerbitzu-eskaintzak	9.100	8.799
Ibilgetuaren amortizazio-hornidurak	3.430	2.663	Zuzeneko zergak	13.665	11.208
Trafiko-horniduretako aldaketa	251	(18)	Zeharkako zergak	799	753
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	3.234	3.094	Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	26.033	29.038
Ustiapeneko bestelako gastuak	22.080	21.385	Ohiko gestioko beste sarrerak	1.672	1.649
<b>Ustiapenaren mozkina</b>	<b>2.005</b>	<b>4.146</b>			
<b>Eraitza finantzario positiboak</b>			<b>Eraitza finantzario negatiboak</b>	<b>158</b>	<b>68</b>
<b>Ohiko jardueren mozkina</b>	<b>1.847</b>	<b>4.078</b>			
			<b>Aurreko ekitaldietako eraitza negatiboak</b>	<b>156</b>	<b>781</b>
			<b>Ezohiko eraitza negatiboak</b>	<b>459</b>	
<b>Ekitaldiko mozkina</b>	<b>1.232</b>	<b>3.297</b>			

**BASAURIKO UDALA**  
**2013. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera**  
**Gastuei buruzko aurrekontuaren likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua Hasierakoa	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Konprometit u gabeko kredituak	Konprometit utako kredituak	Ezagututako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak
I	Pertsonaleko gastuak	20.292	191	20.483	368	20.115	20.095	20.067	28
II	Erosketak eta gastuak	22.465	886	23.351	505	22.846	22.226	19.682	2.544
III	Gastu finantzarioak	205	0	205	138	67	67	67	0
IV	Transferentzia arruntak	2.577	804	3.381	336	3.045	3.045	2.979	66
VI	Inbertsioak	740	7.475	8.216	4.762	3.453	2.249	1.650	599
VII	Transf. de capital	1.355	-544	811	621	189	189	185	4
VIII	Finantza-aktiboak	253	-9	244	137	108	108	99	9
IX.	Finantza-pasiboak	945	0	945	0	945	945	945	0
	Orotara	48.832	8.803	57.635	6.867	50.768	48.923	45.672	3.251

**BASAURIKO UDALA**  
**2013. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera**  
**Sarrerei buruzko aurrekontuaren likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Ezagututako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak
I	Zuzeneko zergak	11.4	0	11.481	13.665	13.238	427
II	Zeharkako zergak	749	0	749	799	766	33
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	9.997	7	10.004	10.608	8.639	1.969
IV	Transferentzia arruntak	25.140	402	25.541	23.306	22.985	320
V	Ondare-sarrerak	213	0	213	162	148	14
VI	Inbertsioak besteentzea	1.100	0	1.100	633	633	0
VII	Kapital transferentziak	0	1.163	1.163	1.209	985	224
VIII	Finantza-aktiboak	153	6.732	6.885	85	85	0
IX	Finantza-pasiboak	0	500	500	0	0	0
	Orotara	48.832	8.803	57.635	50.468	47.480	2.988

**BASAURIKO UDALA**  
**2013. ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazio-egoera**  
(milaka eurotan adierazita)

**Doitutako aurrekontuaren emaitza**

	<b>2013</b>	<b>2012</b>
Ezagututako eskubide garbiak	50.468	55.019
Ezagututako obligazio garbiak	-48.923	-58.479
<b>Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (A)</b>	<b>1.545</b>	<b>-3.460</b>
<b>Itxitako aurrekontuen emaitza (B)</b>	<b>-157</b>	<b>-781</b>
<b>Aurrekontuaren emaitza (A + B)</b>	<b>1.387</b>	<b>-4.240</b>
Finantziazio-desbideraketa positiboak	-469	-1.501
Finantziazio-desbideraketa negatiboak	20	289
Diruzaintzako soberakinekin finantzatutako gastuak	1.587	7.513
<b>Doitutako aurrekontuaren emaitza</b>	<b>2.525</b>	<b>2.061</b>

**Aurrezki garbia**

	<b>2013</b>	<b>2012</b>
Sarrerei buruzko I. Kapitulutik V.era	48.540	47.995
Gastuei buruzko I., II. eta IV. kapituluak	-45.365	-45.112
<b>Aurrezki gordina</b>	<b>3.175</b>	<b>2.884</b>
Gastuei buruzko III. kapitulua	-67	-121
Gastuei buruzko IX. kapitulua	-945	-2.077
<b>Aurrezki garbia</b>	<b>2.164</b>	<b>686</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2013. ekitaldiko aurrekontu emaitzaren eta mozkinaren arteko kontziliazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	Zenbatekoa
<b>Doitutako aurrekontuaren emaitza</b>	<b>2.525</b>
<b>Igotzeak:</b>	
Ibilgetuaren altak	2.248
2009 eta 2010 Udalkutxa Likidazioen 1/3a	1.519
Afektaturiko finantziazio-desbideraketa positiboak	469
Zorraren amortizazioa	945
<b>Murrizketak:</b>	
Ibilgetu materialaren bajak	502
Ibilgetuaren amortizazioa	3.430
Afektaturiko finantziazio-desbideraketa negatiboak	20
Diruzaintzako soberakinekin finantzaturako gastuak	1.587
Ondarea erregularizatzearen emaitza	570
Ibilgetu finantzarioaren murrizketa	115
Trafiko horniduretako aldaketak eta besteak	250
<b>Ekitaldiko mozkina</b>	<b>1.232</b>



## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

#### 1. Erakundearen izaera eta jarduera

Honi erantsitako urteko kontu bateratuak Basauriko Udalarari, Erakunde Autonomoei (Kultur Etxea, Kirolaren Udal Erakundea, Udal Euskaltegia eta Zaharren Egoitza) eta Menpeko Sozietate Publikoei (Basauri-Etxebarri Behargintza, SL eta Bidebi-Basauri, SL) dagozkienak dira, eta horien jarduerak toki-erakunde batek berezkoak dituenak dira, Bizkaiko lurralde historikoko toki-erakundeei aplikagarri zaien lege-arautegiaren arabera.

#### 2. Aurkezpeneko oinarriak

##### a) Irudi fidela

Finkatutako urteko kontuak Basauriko Udalaren, Erakunde Autonomoen eta Menpeko Sozietate Publikoen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta finkapeneko arauen eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurkezten dira, modu horretan, ondarearen, egoera finantzarioaren, Aurrekontu egikaritzearen, eta Finkatutako Erakundearen emaitzen irudi fidela ematea bilatzen da.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontuari buruzko informazioak Udalaren eta horren Erakunde Autonomoen datu bateratuak jasotzen ditu; baina ez menpeko sozietateenak, horiek ez baitute aurrekontu-likidaziorik aurkezten, merkataritzako izaera baitute.

##### b) Kontu-sailak elkartzea

Balantzea eta galera eta irabazien kontua hobeto ulertzeko, egoera horiek elkartuta aurkeztu dira, eta eskatutako azterketak memoriaren ohar egokietan aurkeztu dira.

Halaber, berezko fondoan aurkezpena hobetzeko asmoz, Ondarea epigrafeak izen bereko kontuaren, erabilera orokorreko ondarearen eta aurreko ekitaldietako emaitzen guztirako saldo garbia erakusten du, memoria honen 11. oharrean zehaztuta dagoenez.

##### c) Bateratzea

Urteko kontu bateratuak kontabilitatea bateratze irizpide orokorren arabera prestatu dira, batez ere, integrazio globaleko ereduari jarraiki. Horretarako, bateragarria den perimetroan dauden erakundeen arteko transakzio guztiak ezabatu egin dira, eta baita ere ondare-eragina ere, baldin eta hori Udalak Erakunde Autonomoei ondasunak esleitze bidez badator.

Menpeko Sozietate Publikoei dagokienez, kontu bateratuetarako beraien ondare urritasuna ikusita, baliokidetzan jartzeko metodoa erabili da.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

d) Ondarearen erregularizazioa

2013. ekitaldian, Udalak Ibilgetuaren eta Lagateko eta Erabilera Orokorreko Ondarearen saldoak erregularizatu ditu, Ondasunen Inbentarioak erakusten dituen zenbatekoekin bat egiteko asmoz. Esandako inbentarioaren informazioa, Entitatearen kontabilitate sistemarekin bateratuta dagoen kudeaketa aplikazio informatiko berri bati erantsi zaio, garbitze eta egiaztatze prozesu baten ondoren.

Erregularizazio horren ondorioz, balantzearen eta galera eta irabazien kontuaren epigrafeetan hurrengo doikuntzak egin dira:

<b>Epigrafea</b>	<b>Zorra</b>	<b>Hartzekoa</b>
Erabilera orokorreko inbertsioak		4.374
Ibilgetu ez-materiala		689
Ibilgetu materiala	5.079	
Lurzoruaren udal ondarea	116	
Erabilera orokorreko ondarea		1.206
Lagateko ondarea	504	
Ezohiko emaitzak	570	
<b>Orotara</b>	<b>6.269</b>	<b>6.269</b>

3. Baloratzeko arauak

a) Erabilera orokorrerako inbertsioak

Erabilera orokorrerako inbertsioak eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan baloratu behar dira. Eraikuntza edo ekoizpen prozesua amaitutzat jotzen den eta herritarren erabilera orokorrera entregatuak diren unean, kontu honetan baja ematen zaie eta Ondareko kontuan zordun egiten zaie.

b) Ibilgetu ez-materiala

Ibilgetu ez-materialak erositako edo produkzio-kostuko prezioan kontabilizatuta daude. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatzen da, hurrengo bizitza erabilgarriaren arabera:

	<u>Urteak</u>
Informazio prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

c) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak baloratzeko kontuan hartu da eskuratzeprezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek daukaten benetako balioa izango da eskuratzeprezioa.

1990eko uztailaren 17ko Toki Erakundeen Kontabilitate Instrukzioari erantsitako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren IIA. atalean bildutako balorazio-irizpideen arabera, lehenengo urteko kontuak ezarritakoan agertu ziren ibilgetu materialaren ondasunak, batez ere, aditu independente batek egindako tasaziotik ondorioztatutako balioen arabera erregistratu ziren.

Linealki amortizatu ziren, horien bizitza erabilgarriaren arabera, eta hurrengo koefizienteen funtziotan:

	<u>Urteak</u>	<u>%</u>
Eraikinak	50	2
Instalazio teknikoak eta makinak	8	12,5
Altzariak	8	12,5
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5	20
Garraioko elementuak	5	20
Bestelako ibilgetu materiala	8	12,5

Dauden ondasunetan aktiboen iraupen baliagarria luzatzen duten hobekuntzak kapitalizatu egiten dira. Ibilgetu materialarekin harreman zuzena daukaten eta abian jarri baino lehen sortzen diren finantza gastuak eta trukeko diferentziak ere kapitalizatu egiten dira. Mantentze- eta iraunarazte-lanen gastuak, sortzen diren unean emaitzetan kargatzen dira. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean agertzeko, elementuaren kostua eta dagokion amortizazio metatua ezabatzen dira.

d) Lurzoruaren udal ondarea

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzeak kostua islatzen da. Doan lortu badira, hori gertatu den momentuko salmentabalioa jarriaz kontabilizatzen dira.

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatzen dira, hain zuzen, ibilgetu materialean barne sartutako ondasunen bizitza erabilgarri beraren funtzioan.

e) Ibilgetu finantzarioa

Ibilgetu finantzarioak erosketa prezioan islatzen dira, edo merkatuarenean hori txikiago balitz.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

f) Hartzekodunak

Epe luze eta laburreko zorrak beren ordain-jasotzeko balioan kontabilizatuta agertzen dira, eta balio nominal edo ordain-jasotzean erantsitako balizko interes inplizituak ere islatzen dira, ekitaldi batzuetan banatzekoak diren Gastuen epigrafean. Aipatu interesak emaitzei egosten zaizkie irizpide finantzarioa kontuan hartuta.

g) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapean irizpideari jarraiki egotzen dira, hau da, horiek ordezkaten dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen funtzioan, eta ez da kontuan hartzen horietatik ondorioztatzen diren moneta-korronte edo finantzarioko momentua.

Hala ere, zuhurtasun-printzipioari jarraiki, Sozietateak ekitaldia itxitako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta jatorria ekitaldi honetan edo aurreko batean izanik, aurrikusteko moduko arriskuak eta balizko galerak, berriz, ezagutu bezain arin kontabilizatuko dira.

h) Gizarte Segurantzari egindako kotizazio gehigarriak

Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota gehigarriak ezagutu eta likidatzen diren ekitaldia kontuan izanda, ekitaldi horretako pertsonal gastua bezala kontabilizatuko da, 480/1993 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Iragankorraren arabera, 1993ko apirilaren 1etik aurrera Toki Administrazioako funtzionariak erregimen orokorrean integratzeari buruzkoa, eta kontuan hartzen da ezen, ez dagoela Udalarentzat inolako pasibo edo obligaziorik.

**4. Erabilera orokorrerako inbertsioak**

2013eko ekitaldian epigrafe honen barnean sartutako kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira:

	<u>Milaka eurotan</u>
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>4.059</b>
Eransketak	1.219
Onadreaken erregularizazioa	(4.374)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>904</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**5. Ibilgetu ez-materiala**

Epígrafe honek ikerketa eta proiektuak egiteari dagokion kostua jasotzen du, eta baita ere softwarearen erosketak. 2013 ekitaldian egindako mugimendu hauek izan dira:

	<u>Milaka eurotan</u>
<b>KOSTUA</b>	
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>5.063</b>
Sarrerak	55
Ondarearen erregularizazioa	(2.291)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.827</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>	
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>3.260</b>
Hornidurak	382
Ondarearen erregularizazioa	(1.601)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.041</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>	
<b>Hasierakoa</b>	<b>1.803</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>786</b>

**6. Ibilgetu materiala**

2013eko ekitaldian Ibilgetu materialaren kontuetan egondako mugimenduak, hurrengo hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak eta beste eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta makinak	Altzariak eta beste	Informazio prozesuko ekipoak	Garraioko elementuak	Guztira
<b>KOSTUA</b>							
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>13.433</b>	<b>60.890</b>	<b>7.933</b>	<b>4.506</b>	<b>2.464</b>	<b>817</b>	<b>90.043</b>
Sarrerak	264	487	154	69	0	0	974
Ondarearen erregul.	(2.706)	2.268	8.048	(230)	0	(77)	7.303
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>10.991</b>	<b>63.645</b>	<b>16.135</b>	<b>4.345</b>	<b>2.464</b>	<b>740</b>	<b>98.320</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>							
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>12.117</b>	<b>6.240</b>	<b>3.517</b>	<b>2.253</b>	<b>653</b>	<b>24.780</b>
Hornidurak	0	1.059	1.540	165	180	60	3.004
Ondarearen erregul.	0	543	2.031	(201)	(2)	(146)	2.225
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>13.719</b>	<b>9.811</b>	<b>3.481</b>	<b>2.431</b>	<b>567</b>	<b>30.009</b>
<b>KONTABILITAT BALIO GARBIA</b>							
<b>Hasierakoa</b>	<b>13.433</b>	<b>48.773</b>	<b>1.693</b>	<b>989</b>	<b>212</b>	<b>164</b>	<b>65.263</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>10.991</b>	<b>49.926</b>	<b>6.324</b>	<b>864</b>	<b>33</b>	<b>173</b>	<b>68.311</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

a) Guztiz amortizatutako ondasunak

2013eko abenduaren 31n badago, erabat amortizatuta dagoen 9,7 milioi euro inguruko jatorrizko kostua izan zuen, eta oraindik erabilgarri dagoen ibilgetu materiala.

b) Eskuratutako dirulaguntzak

2013 ekitaldian, Erakundeak 180 mila euro jaso ditu dirulaguntza kontzeptuan, ibilgetu materialean inbertitzeko helburuz. Dirulaguntza horiek, gehienbat erabilera orokorreko inbertsioak finantzatzeko 1.208 mila euroko kapital transferentziekin batera jaso dira (ikus 18a oharra).

7. Lurzoruaren udal ondarea

2013 ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak	Guztira
<b>KOSTUA</b>			
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>2.488</b>	<b>2.366</b>	<b>4.854</b>
Sarrerak	0	0	0
Irteerak/bajak	(502)	0	(502)
Ondarearen erregularizazioa	386	(212)	174
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.372</b>	<b>2.154</b>	<b>4.526</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>			
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>500</b>	<b>500</b>
Hornidurak	0	41	41
Irteerak/bajak	0	0	0
Ondarearen erregularizazioa	0	59	59
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>600</b>	<b>600</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>			
<b>Hasierakoa</b>	<b>2.488</b>	<b>1.866</b>	<b>4.354</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>2.352</b>	<b>1.554</b>	<b>3.926</b>

8. Ibilgetu finantzarioa

2013 ekitaldian egindako mugimenduak, honako hauek izan dira (milaka eurotan):

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

	Partehartze Sozietate publikoetan	e/l maileguak Langileei	e/l mailegua Bilbao Ria 2000 SA-ri	Guztira
<b>KOSTUA</b>				
<b>Hasierako saldoa</b>	431	49	2.898	3.378
Sarrerak	0	0	0	0
Irteerak/bajak	0	5	0	5
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>431</b>	<b>44</b>	<b>2.898</b>	<b>3.373</b>
<b>HORNIDURA</b>				
<b>Hasierako saldoa</b>	112	0	0	112
Hornidurak	110	0	0	110
Irteerak/bajak	0	0	0	0
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>222</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>222</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>				
<b>Hasierakoa</b>	<b>319</b>	<b>49</b>	<b>2.898</b>	<b>3.266</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>209</b>	<b>44</b>	<b>2.898</b>	<b>3.151</b>

Sozietate publikoetan partehartzeari dagokion zenbatekoa, Behargintza Basauri-Etxebarri, S.L. eta Bidebi-Basauri, S.L. sozietateen 2013 urteko kontuek adierazten duten balio garbiaren edo teorikoaren arabera da, jarraian azaltzen denez:

	Milaka eurotan	
	Behargintza	Bidebi
Kontabilitate Balio Teorikoa	177	55
% partehartzea	87%	100%

Bilbao Ria 2000 SA-ri e/l Aurrerapenaren saldoa, ADIF erakundearekin sinatutako Hitzarmenaren bideragarritasuna bermatzeko aipatu sozietateari ordaindutako kopuruei dagokie, eta hori Pozokoetxe, Bidebieta eta Lapatzaren hirigintza-garapenerako da.

**9. Zordunak**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Ohiko ekitaldian, aitortutako zordunak	2.982	5.912
Itxitako ekitaldietan, aitortutako zordunak	5.448	1.771
Zordun diren erakunde publikoak eta besteak	59	1.453
	8.489	9.136
Hornidura gutxiago	(1.906)	(1.655)
<b>Guztira</b>	<b>6.583</b>	<b>7.481</b>

Ohiko ekitaldian aitortutako zordunen saldoak 3,5 milioi euro barne hartzen du, Kutxabank entitatearekin hitzartutako eta erabili gabeko maileguari dagokiona (ikusi 13. oharra).

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**10. Finantza-kontuak**

Kontzeptu honetan sartutako kontu-sailen xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Kutxa eta banketxeak	8.040	4.217
Epe laburreko ezarpenak	0	2.385
Diruzaintzako guztia	<b>8.040</b>	<b>6.602</b>
Langileei aurrerapenak	91	62
Bankukoak ez diren beste kontuak	95	115
 Kontu finantzarioak guztira	<b>8.226</b>	<b>6.779</b>

**11. Berezko fondoak**

Funts propioetan barne sartutako kontuetan izandako mugimenduak, 2013 ekitaldian, hurrengo hauek izan dira:

	Milaka eurotan			Galerak eta Irabaziak
	Ondarea	Lagatako ondarea	Erreserbak sozietate publikoetan	
<b>Hasierako saldoa</b>	<b>93.085</b>	<b>(21.268)</b>	<b>268</b>	<b>3.297</b>
Emaizaren banaketa	3.402	0	(105)	(3.297)
Ondarearen erregularizaioa	1.206	(504)	0	0
Ekitaldiko emaitza	0	0	0	1.231
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>97.693</b>	<b>(21.772)</b>	<b>163</b>	<b>1.231</b>

Memoria honen 2. b) puntuan azaltzen denez, Ondarea epigrafeak honako partidak biltzen ditu:

<u>Kontuak</u>	<u>Milaka eurotan</u>
Ondarea	36.427
Erabilera orokorreko ondarea	(72.871)
Aurreko ekialdietako emaitzak	134.137
	<b>97.693</b>

**12. Hornidurak, arrisku eta gastuetarako**

Balantzean agertutako hartzekodunen saldoa (142 kontua), 80 milakako euro kopurua duena, aribidean dauden auzietatik ondoriozta daitezkeen obligazioak bermatzeko arrazoizkoa den hornidurari dagokio, 2013ko abenduaren 31 arte epaia eman gabe daudenena.



**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**13. Hartzekodunak, epe luzera**

a) Zorrak, kreditu erakundeekin

Erakundea	Helburua	Likidatzeko urtea	T/i (*)	Saldo zordun	e/l-ko zatia	e/lb-ko zatia
BBK	Inbertsioak	2016	E+0,10	851	511	340
BBK	Inbertsioak	2017	E+0,10	612	437	175
Banesto	Inbertsioak	2022	E+0,94	1.827	1.612	215
C.R. Navarra	Inbertsioak	2022	E+0,94	1.827	1.612	215
Kutxabank	Inbertsioak	2024	E+4,50	3.500	3.500	0
				<b>8.617</b>	<b>7.672</b>	<b>945</b>

\* E = EURIBOR (komisiorik, biribiltzerik gabe, eta bitartekotzako gasturik gabe)  
Aurreko koadro horretako eragiketak Korporazioaren berme orokorrarekin bermatuta daude.

2012 urtean Kutxabankekin 4 milio euroko mailegua kontratatu da, erabiltzeko 2 urteko epearekin. 2013ko abenduaren 31n erabili gabe zegoen osorik. Hala ere, mailegu horrek finantzatutako 2012an egindako inbertsioen zenbateko berbera kontabilizatu da, 3,5 milio euro, eta bere kontrako partida Zordunen barruan kokatzen da (ikusi 9. oharra).

**14. Hartzekodunak**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Ezagututako eta ordenatutako obligazioengatik hartzekodunak (ohiko ekitaldia)	3.254	3.974
Ezagututako eta ordenatutako obligazioengatik hartzekodunak (itxitako ekitaldia)	1	2
Aplikatu edota jaso gabe dauden fakturengatik hartzekodunak	48	19
Bestelako hartzekodunak	71	63
	<b>3.374</b>	<b>4.058</b>

**15. Herri erakunde hartzekodunak**

	Milaka eurotan	
	2012	2011
BFA – Udalkutxa e/lb.ra itzultzeko (13 b oharra)	0	1.518
Ogasun Publikoa	907	666
Gizarte Segurantza eta beste Erakundeak	444	423
Bestelako kontzeptuak	243	378
	<b>1.594</b>	<b>2.985</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**16. Bestelako zorrak**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Jasotako maileguengatiko e/lb.eko zorrak	945	945
Jasotako fidantzak eta gordailuak	344	269
	<b>1.289</b>	<b>1.214</b>

**17. Aplikatu gabeko diru-sarrerak**

Epigrafe honetan, batez ere, BFAko Udalkutxa funtsaren konturako sarrerak, 2011 ekitaldiari zegokionak eta 2013ko abenduaren 31n aplikatu gabe zeudenak.

**18. Sarrerak eta gastuak**

a) Transferentziak eta dirulaguntzak

*Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak:*

	Bizkaiko Foru Aldundia		Eusko Jaurlaritza		Beste batzuk		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Transf. arruntak	22.800	25.666	1.307	1.164	718	771	24.825	27.601
Kapital transferentziak	1.012	1.082	196	355	0	0	1.208	1.437
	<b>23.812</b>	<b>26.748</b>	<b>1.503</b>	<b>1.519</b>	<b>718</b>	<b>771</b>	<b>26.033</b>	<b>29.038</b>

*Emandako transferentziak eta diru-laguntzak:*

Transferentzia eta dirulaguntza hauek familiei, kultura edo kirol izaera dutenei, eta batez ere, gizarte izaera duten laguntzak nabarmentzen dira. Halaber, menpeko sozietateei emandako transferentziak daude, 568 mila eurokoak Behargintzari eta 190 milakoak Bidebiri emandakoak.

b) Pertsonaleko gastuak

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Soldata eta alokairuak	15.500	15.497
Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak	286	167
Kotizazio sozialak eta Elkarkidetza	4.241	4.274
Beste gastu sozial batzuk	242	239
	<b>20.269</b>	<b>20.177</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

Ekitaldian batez beste 358 pertsonak egin du lan; kopuru hori honela banatu da:

	<b>Kultur</b>		<b>Zaharren</b>		<b>K.U.E.</b>	<b>Guztira</b>
	<b>Udala</b>	<b>Etxea</b>	<b>Euskaltegia</b>	<b>Egoitza</b>		
Funtzionarioak, jabetzan dutenak	207	0	0	0	0	207
Bitarteko funtzionarioak	19	0	0	0	0	19
Lan kontratupeko langile finkoak	2	29	18	25	20	94
Aldi baterako langileak	2	10	9	8	9	38
Guztira 2013	230	39	27	33	29	358
Guztira 2012	266	39	30	35	29	399
Aldaketa	(36)	0	(3)	(2)	0	(41)

c) Ustiapeneko bestelako gastuak

	<b>Milaka eurotan</b>	
	<b>2013</b>	<b>2012</b>
Kale garbiketa eta zarama bilketa	4.269	4.209
Eraikin publikoen garbiketa	2.250	2.168
Etxez etxeko zerbitzua	1.984	1.992
Kontratu sozio-kulturalak	2.098	1.442
Kontserbazioa eta mantentzea	1.720	1.267
Ur hornidura	1.089	973
Energia elektrikoa	1.047	1.040
Parke eta lorategien garbiketa	963	935
Hondakin solidoak ezabatzea	894	847
Hiri garraioaren zerbitzua	398	425
Komunikazioak	278	400
Beste zerbitzuak eta gastuak	5.090	5.687
	<b>22.080</b>	<b>21.385</b>

**19. Emaidza finantzarioak**

	<b>Milaka pezetetan</b>	
	<b>2013</b>	<b>2012</b>
<i>Emaidza positiboak:</i>		
Epe laburreko ezarpenen interesak	19	158
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak	0	0
<i>Emaidza negatiboak kenduta</i>		
Epe luzeko zorreatiko gastu finantzarioak	(67)	(121)
Baiokodetzan jarritako sozietateen emaitzak	(110)	(105)
Beste gastu finantzarioak		
<b>Emaidza finantzario garbia</b>	<b>(158)</b>	<b>(68)</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**20. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Itxitako ekitaldietako eskubideak ezabatzea	158	781
Itxitako ekitaldietako sarrerak	(2)	0
	<b>156</b>	<b>781</b>
Guztira	<b>156</b>	<b>781</b>

2012 ekitaldian, eskubide ezabatzeak kapital dirulaguntzei zegozkien 483 milaka eurotan. Hori gertatu zen finantzatutako inbertsioak ez zirelako gauzatu aurrikusitako zenbatekoetan.

**21. Ezohiko emaitzak**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
Ibilgetutik eratorritako mozkinak / galerak	111	0
Ondarearen erregularizazioa	(570)	0
Guztira	<b>459</b>	<b>0</b>

**22. Itxi ondorengo gertaerak**

Itxi ondoren ezagutu dugu Udalkutxa 2013eko behin-betiko likidazio positiboa, 182 milaka eurokoa. Kopuru hori 2014 ekitaldian kontabilizatuko da.

**23. Finantzaketa koadroak**

Jarraian, 2013. eta 2012. ekitaldiei dagozkien finantzaketa koadroak jasotzen dira:

**BASAURIKO UDALA**  
**Finantzaketa koadro bateratuak**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>FONDOEN APLIKAZIOAK</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>	<b>FONDOEN JATORRIAK</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>
<b>Ibilgetuaren erosketak</b>	<b>2.248</b>	<b>11.463</b>	<b>Eragiketen ondoriozko baliabideak</b>	<b>5.121</b>	<b>5.960</b>
Erabilera orokorrerako inbertsioak	1.219	3.909	<b>Epe luzerako zorrak</b>	<b>0</b>	<b>3.503</b>
Ibilgetu inmaterialak	55	31	<b>Ibilgetuaren besterentzea</b>	<b>613</b>	<b>640</b>
Ibilgetu materialak	974	6.536	<b>Ibilgetu finantzarioaren murrizketa</b>	<b>115</b>	<b>105</b>
Lurzoruaren udal ondarea	0	640			
Ibilgetze finantzarioak	0	347			
<b>Epe luzerako zorra gutxitu eta berriro sailkatzea</b>	<b>945</b>	<b>2.463</b>			
<b>Funtsen aplikazioak guztira</b>	<b>3.193</b>	<b>13.926</b>	<b>Funtsen jatorriak guztira</b>	<b>5.849</b>	<b>10.208</b>
<b>Aplikazioen gaineko jatorrizko gehiegizkoa)</b> (Kapital Zirkulatzaila gehitzea)	<b>2.656</b>		<b>Jatorrien gaineko aplikazioen gehiegizkoa)</b> (Kapital Zirkulatzaila gutxitzea)		<b>3.718</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

a) Kapital ibilkorraren aldakuntza

	Milaka eurotan			
	2013		2012	
	Gehitzeak	Gutxitzeak	Gehitzeak	Gutxitzeak
Zordunak		898	258	
Epe laburrerako hartzekodunak	2.107		2.734	
Finantza-kontuak	1.447			6.710
<b>Guztira</b>	3.554	898	2.992	6.710
<b>Kapital ibilkorraren aldakuntza</b>	<b>2.656</b>			<b>3.718</b>

b) Eragiketetatik datozen baliabideetara iristeko egin beharreko doikuntzak

	Milaka eurotan	
	2013	2012
<b>Ekitaldiko emaitza</b>	1.232	3.297
Gehitzeak:		
Amortizazioari egindako doikuntzak	3.430	2.663
Ondarearen erregularizazioa	570	0
<b>Gehitzeak guztira</b>	<b>5.232</b>	<b>5.960</b>
Gutxitzeak:		
Ibilgetua besterentzean emandako onurak	111	0
<b>Gutxitzeak guztira</b>	<b>111</b>	<b>0</b>
<b>Eragiketen ondoriozko baliabideak guztira</b>	<b>5.121</b>	<b>5.960</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**24. Diruzaintzako soberakina**

	Milaka eurotan	
	2013	2012
+ Eskuratzeke dauden eskubideak:	<b>6.102</b>	<b>6.633</b>
- Uneko aurrekontukoa	2.988	5.898
- Aurrekontu itxietakoak	5.441	1.771
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetakoak	139	1.288
- Zalantzazkoak diren kobrantzak	(1.906)	(1.655)
- Aplikatu gabeko sarrerak	(561)	(669)
- Ordaintzeke dauden obligazioak:	<b>5.250</b>	<b>5.479</b>
- Urteko aurrekontukoa	3.251	3.959
- Aurrekontu itxietakoak	0	0
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetakoak	2.004	1.545
- Aplikatu gabeko ordainketak	(5)	(26)
+ Funts garbiak	<b>8.040</b>	<b>6.602</b>
=Diruzaintzako soberakina	<b>8.892</b>	<b>7.756</b>
- Afektaturiko Diruzaintzako soberakina	5.378	5.121
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAIN-TZA-SOBERAKINA</b>	<b>3.514</b>	<b>2.635</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

25. Adierazleak

<b>FINANTZA ETA ONDARE ADIERAZLEAK</b>		
<u>Likidezia beheralakoa</u>	<i>Finantza kontuak / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	<b>1,21</b>
<u>Kaudimen epe laburrekoa</u>	<i>Aktibo zirkulatzailea / Hartzekodunak, epe laburrera</i>	<b>2,17</b>
<u>Zorpeketa epe luzekoa</u>	<i>Hartzekodunak, epe luzera / Pasiboa guztira</i>	<b>0,08</b>
<u>Ondare kaudimena</u>	<i>Berezko fondoak / Pasiboa guztira</i>	<b>0,84</b>
<b>AURREKONTU ADIERAZLEAK</b>		
<u>Gastuen egikaritzea</u>	<i>Ezagututako obligazioak / Behin- betiko aurrekontua</i>	<b>0,85</b>
<u>Inbertsio ahalegina</u>	<i>6.-8. kapituluaren gastua / Ezagututako obligazioak guztira</i>	<b>0,05</b>
<u>Sarreraren egikaritzea</u>	<i>1.-7. kapituluaren eskubideak / behin-betiko aurrekontua</i>	<b>1,01</b>
<u>Autonomia</u>	<i>1.-3. kapituluaren sarrerak / Sarrera arruntak guztira</i>	<b>0,52</b>